

Azaroaren 23ko 994/1998 Foru Agindua, Aseguru Primen gaineko Zergaren urteko aitorten laburpena egiteko erabili beharreko 480 eredia onartzen duena, eta aldaketak sartzen dituena abuztuaren 20ko 641/1997 Foru Aginduan, hain zuzen, Aseguru Primen gaineko Zerga aitortu-likidatzeko 420 eredia onartzekoan.

Otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legean jasotako zerga izaerako zenbait agindutara egokitzen duenak, hainbat aldaketa ekarri zizkion, bere 3. artikuluan, urriaren 21eko 70/1997 Foru Dekretuari. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia egokitzen du Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legean emandako xedapenetara Aseguru Primen gaineko Zergari dagokionez.

Artikulu horrek dakartzan aldaketen artean obligazio berri bat ezartzen zaie subjeto pasiboari, hau da, Zerga honengatik urteko aitorten laburpena aurkeztu behar dutela. Horrekin batera, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio laburpen hori aurkezteko bete behar diren epeak eta baldintzak finka ditzan.

Bestalde, lurralde komunean aldatu egin da Aseguru Primen gaineko Zergaren aitorten-likidazioaren 420 ereduak zuen kodifikazioa. Aldaketa horrek kudeaketa tributarioan eragiten duenez, beharrezkoa ikusi da aldaketa hori Gipuzkoako Lurralde Historikoan ere egitea.

Horiek horrela, ondoko hau

XEDATU DUT:

1. artikulua. 480 eredia onartzea.

Onarturik geratzen da Aseguru Primen gaineko Zergaren urteko aitorten laburpena egiteko erabiliko den 480 eredia, foru agindu honetan I. ERANSKIN gisa ageri dena.¹

Ereduak bi ale ditu:

- Administrazioarentzako alea, eta
- Subjektu pasiboarentzako alea.

2. artikulua. 480 eredia aurkeztera behartuak.

¹ Eredu hau ikusteko "zerga aitortenak" apartatura jo beharko duzue.

Ondoko hauek daude 480 eredia aurkeztera behartuta: batetik aseguru entitateak, beti ere ekitaldian zehar Zerga honekin kargatzen diren eragiketak egin badituzte, eta bestetik, eta zergadunaren ordezkari gisa, Europako Ekonomi Eremuko beste Estatu batean helbideratuta dauden aseguru entitateen ordezkari fiskalak, baldin eta entitate horiek Espainian aritu badira zerbitzu prestazio libreko erregimenean urriaren 21eko 70/1997 Foru Dekretuaren 9. artikuluan jasotakoari jarraiki. Foru dekretu horrek Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legean emandako xedapenetara egokitzen du Gipuzkoako zerga araudia Aseguru Primen gaineko Zergari dagokionez.

3. artikulua. 480 eredia aurkezteko epea.

Aseguru Primen gaineko Zergaren urteko aitorten laburpena, 480 eredia, aitortzen den ekitaldia amaitu eta hurrengo urteko urtarrilaren lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztuko da.

4. artikulua. 480 eredia non aurkeztu.

Aseguru Primen gaineko Zergaren urteko aitorten laburpena, 480 eredia, Zergabilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetako batean (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan) aurkeztuko da, edo bestela, zerga bulegoetan nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuko Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan.

XEDAPEN GEHIGARRIA. Abuztuaren 20ko 641/1997 Foru Agindua aldatzea.

1999ko urtarrilaren 1etik aurrera, Aseguru Primen gaineko Zerga aitortu-likidatzeko 420 ereduaren kodea aldatu egingo da. Izendapen berria hauxe izango da:

“Aseguru Primen gaineko Zerga aitortu-likidatzeko 430 eredia.”

Aseguru Primen gaineko Zerga aitortu-likidatzeko eredia onartzen duen 641/1997 Foru Aginduan, abuztuaren 20koan, 420 kodeari egiten zaizkion aipamen guztiak 430 ereduari egiten zaizkiola ulertu beharko da.

Foru agindu honen II. ERANSKIN gisa, Aseguru Primen gaineko Zerga aitortu-likidatzeko eredia aurkezten da, 430 kode berria duela.

AMAIERAKO XEDAPENA.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.